



Lagun Artean



TXOSTENA 2015

Lagun Artean Harrera Zentroa

*Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka: Etxerik gabeko
pertsonek harrera, esku-hartzea eta gizarteratzea:*

NOLA EGIN AHAL DUZU BAT GUREKIN?

Boluntario gisa: boluntarioak gure proiektuetarako ezinbestekoak dira, eta horietan parte hartzeko aukera eskaintzen dugu.

Bazkide gisa: Bazterkeriaren aurkako borrokaren konpromisoa guztiona da; horregatik, lagundu diezaguzu eraldaketa soziala bultzatzen.

Dohaintza batekin: Babestu etxerik gabeko pertsonentzako ohea, eta "HOBE OHEA KARTOIA BAINO" Kanpainarekin bat egin.

BBK 2095 0355 70 3830607841

LABORAL KUTXA 3035 0057 90 0570043812

Dohaintza solidarioa: irabazi asmorik gabeko elkarte bat sartu testamentuko beste onuradun bat balitz bezala, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonetako zintzotasuna eta konpromisoa erakutsiz.

Enpresa solidarioa: enpresa pribatuei guri laguntzeko aukera ematen diegu, gure lana babes dezaten.

Egoitza soziala

Julio Urquijo kalea 5 – Lonja – PK 48014 – Bilbo

Tel.: 94 447 24 87 / Faxe: 94 476 50 50

Posta elektronikoa: lagun-arteana@lagun-arteana.org ▪ WEB orria: www.lagun-arteana.org





Aurkibidea

Eskerrak	4
Aurkezpena	5
Nor gara	6
Non gaude	8
Zer egiten dugu	9
Zerbitzu Irekiak	13
Gaueko Zentroa	14
Eguneko Zentroa	16
Prestakuntza arloa	18
Egoitza arloa	20
Gizarte eraldaketa	26
Kalitatea	29
Arlo ekonomikoa	30



Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde publiko eta pribatuei, bazkideei, boluntarioei eta bestelako kolaboratzaileei 2015ean emandako laguntzagatik. Zuen guztion laguntzarik gabe Lagun Artean ez lizateke posible izango. Eskerrik asko!



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



leioako ostalaritza eskola
escuela de hostelería de leioa

Martina de Zyricalday

BILBAO

Desde 1830



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



Bilbao Lan Ekintza



Aurkezpena

Orrialde hauetan **2015ean Lagun Artean** Harrera Zentroan garatutako jardueren **memoria** aurkeztu nahi dizuegu.

Gure erronka etxerik gabeko pertsonen gizarteratze-prozesuetan eta autonomia berreskuratzen laguntzea da. Horretarako, memoria honetan azaldutako zerbitzua eta prestazioak izan ditugu eskura: Gaueko aterpetxea, hamahiru egoitza dispositibo, gizarteratze-zentroa, zerbitzu irekiak, gizarte tailerrak, enplegurako prestakuntza, aisialdia eta animazio sozio-kulturala eta abar.

Hori guztia pertsonen parte-hartze aktiboaren eta protagonismoaren esparruan, gizarte-bazterkeria egoerak betikitzen dituzten egiturazko arrazoien salaketaren ikuspuntutik lan eginez.

Une honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretua argitaratu berri delarik, egoera berri batean jartzen da: 12/2008 Legeak ezarritako eskubide unibertsal eta subjektiboa eta horrekin lotuta gizarte ekimeneko erakundeok inplikaturik dauden zerbitzuen horniduraren inguruan euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak mugatu nahi ditu.

Horren harira, gure erakundeak hainbat aldaketa eta erronkei heldu beharko die etorkizunari begira.

2015aren amaieran martxan jarri genuen heziketa arloko intentsitate handiko dispositibo bat Helduz programaren barruan. Foru Aldundiak finantzatua da eta bazterkeria egoeretara egokitze beharrian erantzuten dio.

Eskerrak eman nahi ditugu, nola ez, instituzioen, erakunde pribatuen, bazkideen eta boluntarioen aldetik jasotzen dugun laguntza handiagatik. Aurten ere ilusioz beterik eta beti hobetzeko gogoz lanean ari den profesional talde baten lana posible egin dute.

2015ean Etxegabetasuna errotik erauzteko Europako kanpaina amaitu da, baina gure helburuak urrun daude oraindik. Gure hiriko kaleetan 200 pertsonatik gorak egiten dute lo egunero. Kalkuluen arabera, Espainian 30.000 eta 40.000 pertsona inguru bizi dira etxerik gabe. Muturreko bazterkeria egoera hori errotik erauztea da 1983tik daukagun erronka. Badakigu posible dela. Inor ez etxerik gabe.

Lagun Artean Taldea



Nor gara

Lagun Artean irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta bere lan-esparrua gizarteko esku-hartzea da. 1984ko urtarrilaren 17an eratu zen modu ofizialean LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA izenarekin. Erabilera Publikoko erakundetzat aitortu zen 2011. urtean, eta Gizarte Interesekotzat 2014. urtean. Etxerik gabeko pertsonen gizarteratzea eta eraldaketa soziala bultzatzen jarduten du.


EGITEKOA

Lagun Artean Harrera Zentroa Bilboko Elizbarrutiko Caritasera lotuta dagoen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta etxerik gabeko pertsonak edo gizarte-bazterkeria egoera larrian edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuan laguntzen du. Horretarako, harrera, diagnostiko soziala, ostatua eta oinarrizko beharren estaldura, esku-hartze biopsikosoioedukatiboa eta prebentzioa, salaketa eta gizarte-sentsibilizazioa baliatzen ditugu.

IKUSPEGIA

Bidezko gizartearen alde egiten dugu, bazterkeriarik egon ez dadin, baina dagoen bitartean, Bilbon ezagunak izan nahi dugu bazterkeria arriskuan edota gizarte-bazterkerian dauden pertsonak artatzen dituen irabazi asmorik gabeko erakunde moduan. Gure esku-hartzea gizartearen errealitate berrietara egokitzen dugu, eta babesgabetasun handiagoa duten pertsonengana jotzen dugu bereziki.


BALIOAK





Nor gara


ORGANIGRAMA



GIZA BALIABIDEAK



Asebetetze-indizea



(Eskala 1etik 10era)


¹ KAL: Komunitatearen aldeko lanak egiten dituzten pertsonak





Zer egiten dugu

Lagun Artean, gure egitekoan azaltzen denez, etxetik gabeko pertsonak gizarteratzeko prozesuen aldeko konpromisoarekin jaio da, eta gure lana hurrengo bidez garatzen dugu: harrera, gizarte diagnostikoa, ostatua eta oinarritzko beharren estaldura, esku-hartze biopsikosozioedukatiboa, etxetik gabeko pertsonen autonomia eta bizi-kalitate mailarik handiena izan dezaten.



Prozesuen mapa



Zer egiten dugu

Pertsona bakoitzari gizarte-laguntza pertsonalizatua eskaintzen diogu, beren ezaugarri eta gaitasunei erantzuteko. Gure abiapuntua zera da: gizaki guztiok aurrerapenerako aukerak ditugula. Horregatik, **DIAGNOSTIKOA** egiten dugu, pertsonaren beharrak eta ahalmenak identifikatzeko. **BANAKAKO ARRETA PLANAK (BAP)** gidatzen du esku-hartze prozesua, pertsonaren eta bere erreferentziako profesionalen artean adostuta, eta prozesu osoko gida bezala funtzionatzen du.

Banakako esku-hartze sozioedukatiboa burutzeko metodologia laguntza-harremanean oinarritzen da, hau da, pertsonari gizarteratzeko prozesuetan laguntzen zaie, harreman-loturak sortuz eta haientzat erreferente izanez. Laguntza eredua baldintzarik gabeko harreran, negoziazioan, ekintzaren planifikazioan eta banakako laguntzan oinarritzen da. Horretarako, prozesuaren garapena pertsonen eboluzio-eritmoetara egokitzen da, eta pertsona horiek beren prozesuaren protagonistak dira.


Egiten ditugun **ekintzak** hurrengo alorretan kokatzen dira:

- Etxegabetasunak pertsonentzat dakarren narriadura larriaren arriskua **prebenitu**, denbora betetzeko, prestatzeko eta gaitzeko alternatiba sortuz, horiek gizarteratu eta laneratzeko helburuarekin.
- Gizarteratzea **sustatu**, enpleguaren bitartez, pertsonen prestakuntza eta gaitasuna ahalbidetuz, lan merkatura sartzeko aukerak areagotuz eta beren egoera administratiboa legeztauz.
- Lan **komunitarioa** integrazioaren bila eta kulturartekotasunetik datorren aberastasunaren jakitun bihurtuz.
- Lankidetzak, koordinazioa eta **osagarritasuna** gizarte zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin, prestakuntza eta lan zerbitzuekin, etab.
- **Berdintasuna**, genero-ikuspegia landuz, emakumeak gizartean duen rola ideia diskriminatzailea aldatzen saiatuz eta eskubide eta behar berberak dituen gizaki gisa balidatuz.



Zer egiten dugu


Banakako Arreta Planaren dimentsioak (BAP)





Zer egiten dugu

IBILBIDEA



² 2015eko abenduan Etkezuri dispositiboa Aldebaran programatik Helduz programara pasa zen, heziketa intentsitate altukoa. Horrek esan nahi du gure egoitza baliabideak berrantolatu egin direla, Blas de Otero kalekoa itxiz eta BFArekin hitzartutako emakume programa Betaniara pasatuz. Hemen aurkeztu dugun mapak 2015eko abenduan eskura izan ditugun dispositiboen argazkia eskaintzen du.



Zerbitzu irekiak

Oinarrizko beharren estaldura zerbitzua (gosaria, kafea-berotasuna, garbitegia eta higiena eta komuna) Bilboko etxerik gabeko pertsona guztientzat. Gainera, gizarte baliabide sozialei buruzko **informazioa eta orientazioa** ematen da, baita Gizarteratze-prozesuak hasteari buruzkoa ere.



ORDUTEGIA


Gosaria: Astelehenetik igandera (8:00etatik 8:30era)

Kafea: Astelehenetik ostiralera (15:00etatik 15:30era)

Higienea: Astelehenetik ostiralera (14:00etatik 15:30era)

Garbitegia: Astelehenetik ostiralera (14:00etatik 15:30era)


2015. Urteko Zerbitzu Irekien datu nagusiak





Gaueko Zentroa

Gaueko Zentroa 32 lekuko gaueko **aterpea** da, eskakizun ertainekoa, eta etxerik gabeko pertsonei premiazko ostatua eskaintzen die. Ostatu zerbitzuak ohearen erabilera hartzen du, erabili eta botatzeko izararekin, koltxoi-zorro iragazgaitzarekin, burko-zorroarekin eta lumatxarekin. Bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dira: **Kontsigna (24 ordu), higieenea eta dutxa, arropa garbiketa eta lehorketa, gosaria eta afaria.**



Egonaldia egoera psiko-sozialen arabera alda daiteke, gutxienez 3 eta 7 egun bitarteko estalduratik, gehienez 6 hilabetera arte. Egonaldia luzatzea gizarteratze-prozesuari lotuta egongo da beti, eta, kasu berezietan, epea luzatu daiteke.

HELBURUAK

- Ostatua eman eremu egoki, seguru eta estalian, gaua igarotzeko eta norberaren gauzak gordetzeko.
- Oinarritzko beharrak asetzea: elikadura (gosaria eta afaria), higieenea eta dutxa, arropa garbitu eta lehortzea.
- Laguntza soziala ematea gizarteratze-prozesuetan.

Gaueko Zentroaren datu nagusiak 2015. urtean






Gaueko Zentroa

Gaueko zentroak **afari-zerbitzua** dauka, Euskal Herriko Unibertsitateko Ostalaritza Eskolarekin egindako hitzarmenari esker. Zerbitzu horrek gure zentroan egunero gaur igarotzen duten 32 lagunen gaueko elikadura bermatzen du. **Garbitegi zerbitzuan** arropa garbitu eta lehortzeko **2.136 zerbitzu** eman dira.




Gaueko Zentroaren datu nagusiak 2015. urtean


Jatorria



Irteerak



Adina





Eguneko Zentroa




BALIO ANITZEKO GIZARTERATZE ZENTROAren helburua **gizarteratze-prozesuak** abiatzea da adinez naguak diren etxerik gabeko pertsonekin, sexubereizketarik gabe. 20 leku ditu, eta horietatik 15 Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostuta daude.

HELBURUAK

- Aldi batean edo nahiko modu iraunkorrean gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan bizi diren pertsonak marjinaltasunean ez bukatzea edo kroniko ez bihurtzea.
- Pertsona horiek kalean bizitzeagatik pairatzen duten narriadura murriztea.
- Baztertutako edo bazterkeria arrisku handia duten pertsonak gizarteratzen lan egitea, harrera, negoziazio, planifikazio eta laguntza prozesuaren bitartez.

Balio anitzeko Gizarteratze Zentroaren datu nagusiak 2015. Urtean



ORDUTEGIA

- 9:00etatik 10:00etara: Harrera
- 10:00etatik 12:00etara: Programatutako jarduerak
- 12:00etatik 14:00etara: Jantoki sozialak. Laguntza psikologikoa.
- 14:00etatik 16:00etara: Zerbitzu Irekiak (kafetegia, TB, garbitegia, duxak, etab.) 16:00etatik 19:00etara: Programatutako jarduerak. Asteburuak: Aisialdi programa



Eguneko Zentroa

EKINTZAK


- Kudeaketa emozionalari laguntzeko taldea
- Gaztelania eta alfabetatze klaseak atzeritarrentzat (3 maila)
- Eskola-graduatua eta irakaskuntza ertainei laguntzeko klaseak
- Zeharkako gaitasunen tailerrak: Eguneroko bizimodurako trebetasunak, "ikasten ikastea, matematikak, Euskal Herriko kultura...
- Ingeles klaseak
- Marrazketa eta pintura tailerra
- Sukaldaritza tailerra
- Erlaxazio tailerra
- Informatika eta internet
- Kirolak (futbola eta igeriketa)
- Eztabaidak eta bideoforuma
- Kultur irteerak
- Txangoak




Balio anitzeko Gizarteratze Zentroaren datu nagusiak 2015. urtean

Helburuen lorpena


- Helburuak lortu dira
- Helburuak zati batean lortu dira
- Ez dira helburuak lortu



Adina



Ikasketak





Prestakuntza arloa

TAILER SOZIALAK

Tailer sozialek **heziketa arloko esku-hartze programa** osatzen dute, eta bertan norberaren baliabideak eta gaitasunak indartzeko prestakuntza eskaintzen da. 2015ean eguneko 15 leku eduki ditugu.



ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

HELBURUAK


- Etxerik gabeko pertsonentzako oinarritzko prestakuntza ematea, gizarteratzea bultzatzeko.
- Eguneko Zentroan esku-hartze prozesuak abiatzeko sarbide izatea.



EKINTZAK

- Gaztelaniazko prestakuntza atzeritarrentzat
- Izaera psikoedukatiboko tailerrak
- DBHn eta lanbideko heziketa zikloan (erdi mailan edo goi mailan) gradudun izateko prestakuntzan laguntzea.

Tailer Sozialen datu nagusiak 2015. urtean





Prestakuntza arloa

NEKAZARITZAKO LAGUNTZAILEAREN LANBIDE ZIURTAGIRIA



Pasa den urtean enplegurako prestakuntza arloan urratsak ematen hasi ginen, Lanbiderekin elkarlanean. Ildo beretik, **nekazaritzako laguntzaile** izateko **370 orduko** ikastaroa (330 ordu tekniko eta 40 praktiko) garatzen jarraitu dugu Artxandako Aize Onak baserrian, 2015eko ekainaren 1etik irailaren 1era. Guztira **11 pertsonak** lortu dute profesionaltasun ziurtagiria eta praktika profesionalak burutu dituzte. Ekimen horri esker, gure baserriko nekazaritza ustiapena aktibatu eta instalazioak mantendu ditzakegu.

HELBURUAK

- Beharrezko eginkizunak garatzea barazki jangarrien espezie eta aldaerak sortzeko prozesua osatzeko, aire librean edo babesean, kasu bakoitzean teknikarik egokienak erabilia.
- Nekazaritza praktika osagarriak egitea uzta bikainak lortzeko, betiere kalitatea, ingurumenaren babesa eta errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartuta.





Egoitza arloa

Etxebizitza arloan, 13 etxebizitzako sarea dugu, guztira 73 lekurekin, eta hurrengo **programei** erantzuten diegu: **Aldebaran (Tau Sarea eta Kronikotasun egoerako pertsonak), Liza eta Helduz; Immigrazioa, Emakumea eta Bitartekaritza.**


Egoitza-baliabideak **bizi eremuak** dira, eta bertan gizarteratzeko ibilbide pertsonalak gauzatzen dira. **Zerbitzu horren hartzaileak** bi sexuetako etxerik gabeko pertsonak, 18 eta 60 urte bitartekoak, eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden eta adingabeen ardura duten amak.

HELBURUAK

- Pertsonen alternatiba ematea gizarte-bazterkerian ez sartzeko edota kroniko ez bihurtzeko.
- Egoitza-estaldura eskaintzea, oinarrizko beharrak estali ahal izateko eta egonkortasuna emateko gizarteratze-prozesua hasteari begira. Aurkitutako beharrak eta pertsonaren gaitasunak kontuan hartuta, banakako arreta plana batera zehaztea lortu beharreko helburuekin. Pertsonen laguntzea autonomia mailarik handiena lortzeko eta gizarteratzeko prozesuan.



2015eko egoitza arloko datu orokorrak





Egoitza arloa

BFA-REKIN HITZARTUTAKO EGOITZA ARLOA

ALDEBARAN PROGRAMA

TAU SAREA


Hezkuntza arloko intentsitate ertaineko etxebizitzak dira, **gizarte-bazterkeria egoeran dauden eta gizarteratze-prozesua burutzeko laguntzapeneko etxebizitza bat behar duten pertsonaei eskainiak**. Lau egoitzako sarea dugu, eta TAU SAREA osatzen dute, guztira 28 lekurekin.

- **BLAS DE OTERO**: 4 leku (emakumeak)
- **LUZARRA**: 9 leku
- **ETXEZURI**: 8 leku
- **BETANIA**: 7 leku:



2015eko abenduan Tau Sarea berregituratu egin zen eta dispositibo hauez osatua dago:

- **LUZARRA**: 9 leku
- **BETANIA**: 5 leku (emakumeak)





Egoitza arloa

KRONIKOTASUNA

Heziketa intentsitate ertaineko etxebizitza, egonaldi ertain-luzekoa, **kronikotasun-egoeran** dauden pertsonentzat.

- **MENDIPE**: 4 leku



MENDIPE

5 pertsonak jaso
durte arreta

LIZA

6 pertsonak jaso
dute arreta



LIZA PROGRAMA

Heziketa intentsitate ertaineko etxebizitza bat dugu gizarteratze fasean dauden eta **toxikomania arazoak** dituzten pertsonen tratamenduari laguntzeko.

- **MENDIGANE**: 4 leku




Egoitza arloa

HELDUZ PROGRAMA¹

- **ETXEZURI:** 7 leku (18 eta 23 urte bitarteko gazteak)

EMANTZIPAZIO etxebizitza deitzen zaio, eta ondorioz, heziketa **INTENTSITATE HANDIKO** alojamendu zerbitzua da. 4 pertsonari eman zaie arreta.



¹ Dispositibo berri bat ireki zen 2015eko abenduaren 10ean.



Egoitza arloa

KUDEAKETA PROPIOKO EGOITZA ARLOA

IMMIGRAZIO PROGRAMA: AIZE ONAK BASERRIA



Heziketa maila ertaineko etxebizitza bat da, **gizarte-bazterkeria** egoeran dauden etorkinei harrera emateko.

- **AIZE ONAK:** 10 leku

EMAKUME PROGRAMA

Heziketa maila ertaineko etxebizitzak dira, **bakarrik dauden edota adingabeen ardura duten emakumeentzako.** Hiru etxebizitzako sare bat dugu, guztira 14 lekurekin.

- **RAMON Y CAJAL:** 2 leku (emakumea bakarrik)
- **ÁGORA:** 6 leku (emakumea + adingabeak)
- **MUGABE:** 6 leku (emakumeak bakarrik edo adingabeekin)





Egoitza arloa




BITARTEKARITZA PROGRAMA

Zubi-etxebizitzak dira, heziketa maila ertaineko etxebizitzak eta etxebizitza autonomoen artekoak. Gurekin prozesuren bat burutu duten eta DBEren azpitik dauden diru-sarrerak dituzten pertsonentzako edo gizarteratze-prozesua burutzeko laguntza puntual bat jasotzen jarraitu behar dutenentzako, prestakuntza prozesu bat edo bestelako bat burutzen egoteagatik. Hiru etxebizitza ditugu, guztira 12 leku.

BETIRAKO: 4 leku

- **HEGAZ:** 4 leku
- **EZEIZA:** 4 pertsona.

2015eko datu orokorrak, Immigrazio, Emakume eta Bitartekaritzakoak





Gizarte eraldaketa

ESKUBIDEAK + KANPAINA

EAPN Euskadiren izenean (Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako borroka), EskubiDeak + Derechos + kanpaina martxan jarri da. 100 erakunde baino gehiagoren babesa dauka, horien artean Lagun Artean Harrera Zentroa. Kanpainaren helburuak honakoak dira:

- DBEren defentsa
- Euskal herritarrei DBEren irudi erreal bat ematea
- DBEren "kontrako" kanpainak indargabetzea

Apirilaren 15ean prentsaurreko bat deitu zen eta ekimen honekin bat egin duten erakunde guztiak bertaratu ziren. Bertan DBEren eta oinarrizko giza eskubideen inguruko Manifestu - Dekalogoaren berri eman zen.



BESTE BI PLATAFORMA

Beste Bi plataforma etxebizitza arloko inklusioaren eta etxerik gabeko pertsonen aldeko plataforma da eta berau osatzen dugun 23 erakundeon konpromisoa pertsona guztiok etxe bat izatea da. Apirilean eta azaroan manifestazioa egin genuen hori aldarrikatzeko, eta kalean pertsona bat hil den bakoitzean ere gure adierazpena kaleratzen dugu; 2015ean hiru aldiz gertatu da.





Gizarte eraldaketa

ELIZBARRUTIKOAREN ELKARTASUN KEINUA 2015. BATU ETA BANATU. TODO EN COMÚN.

Elizbarrutiko keinuak krisiaren eta bazterkeriaren biktimei elkartasuna eta gertutasuna helarazi nahi die. Apirilaren 17an, "TODO EN COMUN/ BATU ETA BANATU" leloarekin parte hartu genuen. Goizean haurrentzako jarduerak dinamizatu genituen eta arratsaldean Bilboko kaleetan zehar manifestazioa egin genuen.

ELIKAGAIEN BANKUAREKIN LAN EGITEA

Uztailaren 10etik abuztuaren 14ra bitartean elikagaien bilketan parte hartu genuen.

DOKUMENTALA: "HABLA: DOCUMENTA TU SALUD" ANESVAD

2015eko martxoaren 26an osasun eskubidearen eta bazterkeriaren inguruko dokumental hau aurkeztu zen: "HABLA: DOCUMENTA TU SALUD". Anesvaden eskutik, Bilboko Campos Elíseos Antzokian. Ikus-entzunezko solasaldi baten bidez, 16 GKEren ahotsa jaso du lan horrek, horietako bat Lagun Artean, eta honako gaien inguruan kontzientzia sortu eta hausnarketa bideratu nahi du: krisiaren eragina, osasun erreforma, murrizketak eta pertsona babegabeenen eskubideen urraketak.



PLATAFORMA NORTE, MALAGAN



Plataforma Norte izenekoa etxerik gabeko pertsonen alde lan egiten duten Estatuko iparraldeko erakunde publiko eta pribatuz osatuta dago. Aurten, maiatzaren 25 eta 26an Malagara joan gara hiri horretako baliabideak lehen eskutik ezagutzera: Malagako Udaleko Puerta Única zentroa, San Juan de Dios Zentroa, Pozo Dulce Etxea, Udal Harrera Zentroa, Rais Fundazioa eta Santo Domingo jantokia.



Gizarte eraldaketa

SAREAK ETA FOROAK



EAPN. Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea. Euskadi.



GIZARDATZ. Gizarte Ekimen eta Esku-hartzeko Erakundearen Elkartea.



EZETZ!. Indarkeria matxistaren aurkako elkarteen euskal sarea.



EKAIN. Gizarteratzearen aldeko Euskadiko Sareak.



FIARE. Banka etikoa.



BESTE BI. Etxerik gabeko pertsonen egoitza-inklusioren aldeko plataforma.



PLATAFORMA NORTE. Etxerik gabeko pertsonen kolektiboarekin lan egiten duten Estatuko iparraldeko erakunde publiko eta pribatuen sarea.



ECOSISTEMA. Bizkaiko 7 gizarte erakundearen sareko lana, etxerik gabeko pertsonen etxebizitza-estaldura emateko.



PREMIE

2011ko otsailetik PREMIE kalitate ziurtagiria daukagu eta 2016aren amaieran berriztatuko dugu.

2014-2017 I. BERDINTASUN PLANA

2014-2017 I. [Berdintasun Planean](#) bete-betean sartuta gaude. Emakunderen erakunde laguntzaile izaeraren aitortzea jaso dugu eta honako jarduerak burutu ditugu:



- Ekainaren 1etik 5era Rolak Trukatzeke astea egin genuen.
- Photo Call martxoaren 8an.
- Emakume, babesgabetasun eta bazterkeriari buruzko azterketa EAEn.
- Emakumeentzako Autoezagutza eta Autoestimu tailerra.
- Lengoaiaren gida ez sexista eta Lagun Artean-en irudia: Dokumentuak landu eta errebisatzea, datu bereiziak eta abar.


DATU-BASE BERRIA

2015ean martxan jarri dugu datu base berri bat, gure esku-hartzea errezago kudeatzeko.




Arlo ekonomikoa

DIRU-SARRERAK



GASTUAK





Arlo ekonomikoa

2015 EKITALDIAREN USTIAPEN KONTUAK

DIRU-SARRERAK	Erakunde publikoak	888.984,42
	Erakunde pribatuak	140.223,78
	Erabiltzaileen ekarpenak	24.111,26
	Dohaintzak	118.586,55
	Bestelako diru-sarrerak	22.274,10
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		1.194.180,11
GASTUAK	Langile gastuak	681.911,07
	Alokairuak	111.596,81
	Azpiegiturak mantentzea	109.190,91
	Erabiltzaileentzako laguntza edo zerbitzuak	104.641,65
	Administrazioa eta bulegoa	26.737,97
	Zergak eta finantza gastuak	1.628,84
	Aseguruak	9.402,98
	Kanpo zerbitzuak	96.835,46
	Amortizazioak	44.504,26
	Bestelako gastuak	1.194,91
	GASTUAK GUZTIRA	1.187.644,86
EMAITZA		+6.535,25



Arlo ekonomikoa

FINANTZATZAILEA

Erakunde publikoak

- Bilboko Udala – Gizarte Ekintza Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia – Enplegu, Gizarteratze eta berdintasun Saila
- Eusko Jaurlaritza
 - Lan Zerbitzu Publikoa - Lanbide
 - Lan eta Gizarte Gaietako Saila

Erakunde pribatuak

Gandarias Fundazioa	Bilboko Elizbarrutiko Caritas
La Caixa Fundazioa	BBVA Territorios Solidarios
Menchaca de la Bodega Fundazioa	Bilbao Ekintza
Víctor Tapia - Dolores Sainz Fundazioa	Kutxabank

IKUSKARITZAK

- **Ikuskaritza ekonomikoa:** Auren Consultores Norte S.L enpresak gure kontuak ikuskatu ditu, erakundearen egoera ekonomikoa behatuz.
- **Sare Ekonomiko Alternatibo eta Solidarioaren Gizarte Ikuskaritza (REAS):** Aurten ere Gizarte Ikuskaritza bat pasatu dugu eta Ekonomia Solidarioaren printzipioekin konpromisoa daukan erakundearen ziurtagiria lortu dugu. REAS Euskadiren eskutik jaso dugu eta printzipioak Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko “Ekonomia Solidarioaren printzipioen kartan” jasota daude.

